



OSAKIDETZAN MINARI AURRE EGITEARI BURUZKO V. SAIOA

KURSAAL JAUREGIA. DONOSTIA
URRIAREN 3A.

"Min iraunkorrari eta horrek pazienteengan, profesionalengan eta komunitatearengan duen eraginari modu ez-farmakologikoan heltzearen esperientzia"

Mina Aztertze Nazioarteko Elkarteak (IASP) honela definitzen du mina: "esperientzia sentsorial eta emozional desatsegina, ehun-kalte erreal edo potentzialarekin lotua, edo lesio horren arabera deskribatua".

Mina osasun publikoko arazo bat da, eta eragin nabarmena du herritarren bizi-kalitatean. Sintoma honek eragin handia du norbanakoengan, familiengan, lanean, gizartean eta ekonomian.

Zalantzarik gabe, minari heltzeari buruzko hausnarketak pazienteen eta haren inguruaren beharrak eta lehentasunak izan behar ditu ardatz, eta minaren kudeaketari modu holistiko eta integralean heldi behar dio.

Farmakologia da minaren tratamenduaren lehen ildoetako bat, baina garrantzitsua da azpimarratzea badirela sendagarriak ez diren estrategiak, minaren tratamenduan funtsezko zeregina betetzen dutenak. Horren harira, nabarmentzekoak dira, besteak beste, neurozientzien eremuan, neurri fisioterapikoak eta komunitate-ingurunean eskuragarri dagoen aktibo sorta zabala.

Era berean, ez dugu ahaztu behar autozainketak funtsezko zeregina duela, pazientearen ahalduzkoaren bidez indartu beharreko arreta-ardatz gisa.

Hori guztia, kontuan hartuta mina zeharkako prozesu bat dela, erakunde sanitario osoa inplikatzeko duena, eta baliabideak zorrotz egokitzea eskatzen duena, baliabide horiek eraginkortasunez erabil daitezela, pazienteari, jarraitutasunari, kalitateari eta segurtasunari begirako arreta-irizpideei erantzuneko dien tratamendua bermatzeko.

Osakidetza
osakidetza, inoiz baino gehiago

Topaketa honen azken helburua ideiak bateratzea da, gaiari buruz hausnartzeko eta jardunaldiaren izenburuan dauden hiru protagonistek (pazientea, profesionala eta komunitate-ingurunea) duten interakzioa eta zeregina hobetzeko esperientziak ikusteko.

HELBURUA:

- Pazientea, profesionala eta komunitatea triangeluari dagokionez, minari ikuspegi ez-farmakologikotik heltzeko orduan gaur egun dauden erronketako batzuk ezagutzea.
- Min iraunkorra paradigma berrietatik ulertzea: erlazio handiagoa garunarekin eta txikiagoa ehunekin.
- ESletan Lehen Mailako Arretan min iraunkorrari aurre egitean izan diren esperientziak partekatzea, baita haien lehen emaitzak ere.
- Pertsonak eta eragileek minaren inguruan izandako esperientziak partekatzea eta eztabaidatzea.

NORENTZAT:

- Minarekin lotutako aurrerapen ez-farmakologikoetan interesa duten profesionalak, pazienteak eta komunitatea.
- Osasun Saileko eta Osakidetzako kudeatzaileak eta minari aurre egiten parte hartzen duten beste eragile batzuk.

DINAMIKAK:

- Hitzaldiak
- Adituen eta esperientzien panela.
- Saio parte-hartzailea saiora bertaratutakoen artean.

PROGRAMAREN AURRERAPENA

11:00 Egiatzapena

11:15 Inaugurazioa

Rosa Pérez Esquerdo.

Osakidetzako zuzendari nagusia

11:30 Hitzaldia

” Barómetro del dolor crónico 2022. Análisis de situación e impacto del dolor crónico en España”

Inmaculada Failde.

Min Kronikoaren Behatokiko zuzendaria. Medikuntza Prebentiboaren eta Osasun Publikoaren Arloa. Cadizko Unibertsitatea

12:00 1. espazioa

“Dolor y ejes de actuación: paciente, profesional y comunidad”

Osakidetza
osasuna, inoiz baino gehiago

Moderatzailea: Inmaculada Moro. Erizaintzako zuzendariordea eta aholkularia. Zuzendaritza Nagusia. Osakidetza.

Hurbilketa alderdi hauetatik:

- **Lehen mailako arretako fisioterapia**
- **Pazienteen esperientzia Ebaluazio kualitatiboa**
- **Pazientearen begirada Haien bizipena**
- **Komunitatetik; udaletik.**

13:15 2. espazioa:

Dinamika interaktiboa

Moderatzailea: Maria Ángeles Cidoncha. Erizaintzako Irakaskuntza eta Ikerketaren arduraduna. Erizaintzako aholkularitza. Zuzendaritza Nagusia. Osakidetza

13:45 3. espazioa

“Experiencia de la Unidad de Afrontamiento activo del dolor persistente en Valladolid”

Moderatzailea: Iñaki Aguirrezabal

14:15 Amaiera:

Victor Bustamante Madariaga.
Asistentzia Sanitarioko zuzendaria

Osakidetza
osasuna, inoiz baino gehiago